

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Onartzea "A-3920 errepidearen trazadura, 32,330 kilometrotik 32,700 kilometroraino, hobetzeko eta zabaltzeko proiektua. (Aramaio-Arrasate)" proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea, eta dei egitea balio justua elkarren arteko adostasunez zehazteko eta, hala badagokio, egin beharreko aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21ean egindako bilkuran, 791/2021 Erabakia onartu zuen. Hona hemen horren testua:

"A-3920 errepidearen trazadura, 32,330 kilometrotik 32,700 kilometrora (Aramaio-Arrasate), hobetzeko eta zabaltzeko proiektuak" ezinbestean okupatu beharreko azalera handitzea. Okupatzeko beharra adieraztea. Prozedura arrunta. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 18ko 657/2012 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen "A-3920 errepidearen trazadura, 32,330 kilometrotik 32,700 kilometrora (Aramaio-Arrasate), hobetzeko eta zabaltzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 23ko 210/2013 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion "A-3920 errepidearen trazadura, 32,330 kilometrotik 32,700 kilometrora (Aramaio-Arrasate), hobetzeko eta zabaltzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda aldatzeari.

Errepide Zerbitzuak desjabetze proiektuari buruzko 2021eko urriaren 4ko txostena egin du, eduki honekin:

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 428/2012 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen "A-3920 errepidearen trazadura, 32+330 kilometrotik 32+700 kilometrora, hobetzeko eta zabaltzeko eraikuntza proiektua", ADIFek idatzitakoa. Proiektu hori "Abiadura Handiko Linearen (Gasteiz-Bilbo-Donostia; tartea: Aramaio-Arrasate) itxitura eta betegarriak egokitu eta kalteak lehenagoratzeko obra osagarrien proiektua" ren zati da. Horrez gain, hasierako onespena eman zitzaion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta indibidualizatuari, eta jendaurrean jarri zen.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 18ko 657/2012 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen aipatutako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 23ko 210/2013 Erabakiaren bidez, "A-3920 errepidearen trazadura, 32+330 kilometrotik 32+700 kilometrora (Aramaio-Arrasate), hobetzeko eta zabaltzeko eraikuntza proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda aldatzea onetsi zen, eta ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko. Okupazio aktak sinatu ziren, eta lursail horiek behar bezala desjabetuta eta eskuragarri geratu ziren.

2021eko uztailaren 1ean, ADIFek behin betiko onespen teknikoa eman zion "Aramaioko (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduerak egiteko eraikuntza proiektua" ri Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Lineak eragiten ziolako, eta jendaurrean jartzeko espediente onetsi zuen.

ADIFek behin betiko onetsitako proiektu horren barruan, 3. jarduketa lehen aipatutako A-3920 errepidearen trazadura handitu eta hobetzeari dagokio, 2013an desjabetu zena.

ADIFek behin betiko onetsitako proiektua eta obrak egiteko behar diren okupazioak berrikusi ondoren, bere garaian egindako desjabetzea zabaltzeko beharra ikusi da, proiektua lursailaren errealitatera eta haren ezaugarri geoteknikoetara egokitzearen ondorioz, baita jabari publikoko eremuaren okupazioa kontuan hartzearen ondorioz ere.

Horretarako, 4/090, 4/100, 5/101, 6/100, 7/100, 8/100, 9/100, 10/080 eta 10/090 finkak sortu dira, erabaki honen eranskinean agertzen diren afekzioekin, eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu da, desjabetzearen ondorioetarako.

Desjabetze espedientea izapidetzeari dagokionez, eta ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendan eragindako finken desjabetzea prozedura arruntaren bidez izapidetu zenez, eta jabeak desjabetzearen balio justua onartu zuenez, okupatu beharreko azalera handitzea Nahitaezko Desjabetzearen Legean aurreikusitako prozedura arruntaren bidez izapidetu behar dela uste da.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haien okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte Hartze eta Gobernu Onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea "A-3920 errepidearen trazadura, 32+330 kilometrotik 32+700 kilometrora, (Aramaio-Arrasate) hobetzeko eta zabaltzeko eraikuntza proiektua" k ezinbestean okupatu beharreko azalera.

Bigarrena. Horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu da, desjabetzearen ondorioetarako.

Hirugarrena. Nahitaezko Desjabetzearen Legean araututako prozedura arruntaren bidez izapidetzea desjabetze espedientea.

Laugarrena. Esleitzea 2.411,85 euro eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuaren 21.3.22 taldeko "Desjabetzeak" izeneko 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-181/000.21.3.22).

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain diezaiela aipatutako lerroaren eta zorpekin erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera"

Jakin dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan adierazten da, eta ohartarazten da egintza horrek administrazio bidea amaitzen duela; beraz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, egoki iritziz gero, horren aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza eman zuen organoari. Horretarako, hilabete epea izango da, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte (urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen prozedura erkidearena, 123 eta 124. artikulua).

Horregatik, desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei dei egiten zaie egintza batera joan daitezen, balio justua elkarren arteko adostasunez zehazteko, eta, hala badagokio, aktak egiteko.

Egintza hori Aramaioko Udalaren lokaletan egingo da, erantsitako zerrendan ageri diren egunetan eta orduetan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 18a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

A-3920 ERREPIDEAREN TRAZADURA, 32.330 KILOMETROTIK 32.700 KILOMETRORAINO, HOBETZEKO ETA ZABALTZEKO PROIEKTUA.  
(ARAMAIO-ARRASATE)  
PROYECTO DE AMPLIACIÓN Y MEJORA DE TRAZADO DE LA A-3920, ENTRE LOS PK. 32.330 Y 32.700. (ARAMAIO-MONDRAGON)

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup> BEHIN-BETIKOA	ERABERAREN EGUNA	ORDUA	
		POLIGONOA	LURZATIA				UDALERRIA
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	DIA	HORA
9/100	J.MARIA AGUIRRE MAZMELA ESTEBAN AGUIRRE MAZMELA MIGUEL AGUIRRE MAZMELA M.JESUS AGUIRRE MAZMELA MATIAS AGUIRRE MAZMELA	5	431	ARAMAIO	Monte	14/2/22	10:00
4/100	PEDRO AGUIRIANO URRUTIA	6	541	ARAMAIO	Monte	14/2/22	10:45
4/090	PEDRO AGUIRIANO URRUTIA	6	28	ARAMAIO	Erial	14/2/22	10:45
10/090	ESTHER AZPIAZU BEITIA	6	1	ARAMAIO	Monte	14/2/22	12:00
10/080	ESTHER AZPIAZU BEITIA	6	2	ARAMAIO	Monte	14/2/22	12:00
6/100	F. JAVIER IRIARTE ERRASTI	6	26	ARAMAIO	Monte	14/2/22	12:45
8/100	F. JAVIER IRIARTE ERRASTI	5	433	ARAMAIO	Monte	14/2/22	12:45
7/100	J.LUIS AGUIRRE ISASMENDI	5	436	ARAMAIO	Pastizal	14/2/22	13:30
5/101	DIPUTACION FORAL DE ALAVA	6	27	ARAMAIO	Monte	14/2/22	13:30

Esp./Expte. 2012/120-A